



A K T A

Aiarako Kuadrillako **TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK** egindako ohiko bilkurarena,

2020ko azaroaren 4koa

Arespalditzako Aiarako Kuadrillaren egoitzan, **13:15an**, jarraian zerrendatzen diren batzarkideak elkartu dira **ohiko bilkura egiteko, lehen deialdian**. Aiarako Kuadrillako Tokiko Gobernu Batzordeko presidente **Encina Castresana Astarloa** andrea izan da bilkuraren burua, eta M^a Virginia Carcelén García andrea, behean izenpetzen duena, aritu da idazkari-lanetan.

Jarraian aipatutako jaun-andre batzarkideak bertaratu dira:

Encina CASTRESANA ASTARLOA and. (EAJ-PNV)

Gentza ALAMILLO UDAETA jn. (EAJ-PNV)

Jon ESCUZA DEL CAMPO jn. (EAJ-PNV)

Josune IRABIEN MARIGORTA and. (EAJ-PNV)

Joseba VIVANCO RETES jn. (EH BILDU)

Ez da bertaratu eta ez etortzea justifikatu du jaun batzarkide honek:

Ander AÑIBARRO MAESTRE jn. (EAJ-PNV)

Irabien andrea 13:31an bertaratu da, gai-zerrendako 6. puntua aztertzen ari direnean. Alamillo Udaeta jauna bilkuratik atera da gai-zerrendako 11. puntua amaitu ostean.

Ez dira bilkurara bertaratu Talde Politiko Batzarkideetako bozeramaileak, gonbidatuak izan arren.

Dagozkien sailletako puntuak eztabaidatzeko bertaratu dira sustapen ekonomikoko teknikari Ghiro jauna, euskarako teknikari Amurrio andrea eta ingurumeneko teknikari Aintzane Arbaizagoitia andrea.

Kuadrillako presidente andreak, **lehenengo deialdian, 13:15an**, bilkura irekita dagoela adierazi du, eta, idazkariak bilkura abiarazi ahal izateko quoruma badagoela egiaztatu ondoren, Eskualdeei buruzko Foru Arauaren (azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua) 25. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, besteak beste abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldarazitako Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/1985 Legea) 46.2.c) artikuluari lotuta. Halaber, agindu du ezarritako gai-zerrendari jarraituko diotela.



1.- AZKEN BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA IRAKURTZEA ETA, HALA BADAGOKIO, ONESTEA

Bilkurako deialdiarekin batera, egindako azken bilkurako zirriborroa erantsi da, hori aztertzeko, eta, alegaziorik ez dagoenez, **ERABAKI DA**, aho batez, 2020-10-08an egindako bilkurako akta onestea.

2.- DIRUZAINTZAREN EGOERA

Saileko teknikari Ghiro jaunak honako informazio hau eman du:

DIRUZAINTZA	29/10/2020	534.581,12 €
--------------------	-------------------	---------------------

ORDAINTZEKE	470.000,00 €
--------------------	---------------------

Urria	200.000,00 €
Azaroa	270.000,00 €

KOBRAITZEKE

UDALAK

MANKOMUNATUAK	470.565,44 €
BIZKAITARRAK	4.773,32 €

AFA

--	--

BESTE BATZUK

ENVISER/EKOENBALAJEAK/erp	26.135,71 €
---------------------------	-------------

KOBRAITZEKE, GUZTIRA	501.474,47 €
-----------------------------	---------------------

	HHS 2019	HHS 2020	GUZTIRA
Aiara	0,00 €	41.306,35 €	41.306,35 €
Laudio	0,00 €	181.453,38 €	181.453,38 €
Amurrio	0,00 €	118.152,07 €	118.152,07 €
Artziniega	0,00 €	0,00 €	0,00 €
Okondo	0,00 €	0,00 €	0,00 €
	0,00 €	340.911,80 €	340.911,80 €

Orozko	0,00 €	4.273,32 €	4.273,32 €
--------	--------	------------	-------------------



Arakaldo	0,00 €	500,00 €	500,00 €
	0,00 €	4.773,32 €	4.773,32 €
	0,00 €		345.685,12 €

**ZORRA, GASTU OROKORRAK ETA
BESTELAKOAK**

	GASTU OROKORRAK			
	2.019	2.020	HIRIGINTZA	GO+HIRGZ.
Aiara	11.970,32 €	33.465,84 €	15.146,56 €	60.582,72 €
Laudio	1.875,23 €	14.646,75 €	7.416,82 €	23.938,80 €
Amurrio	0,00 €	23.904,19 €	0,00 €	23.904,19 €
Artziniega	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €
Okondo	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €
	13.845,55 €	72.016,78 €	22.563,38 €	108.425,71 €

	GO+HIRGZ.	EEP eskualdeko enplegu plana	BERRAKTIBATZEA	GUZTIRA
Aiara	60.582,72 €	0,00 €	0,00 €	60.582,72 €
Laudio	23.938,80 €	0,00 €	11.276,02 €	35.214,82 €
Amurrio	23.904,19 €	9.931,91 €	0,00 €	33.836,10 €
Artziniega	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €
Okondo	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €
	108.425,71 €	9.931,91 €	11.276,02 €	129.633,64 €

Urduña		0,00 €	0,00 €	0,00 €
--------	--	--------	--------	---------------

UDALEN ZORRA, GUZTIRA

	ZORRA
Aiara	101.889,07 €
Laudio	216.668,20 €
Amurrio	151.988,17 €
Artziniega	20,00 €
Okondo	0,00 €
	470.565,44 €
Urduña	0,00 €
Orozko	4.273,32 €



Arakaldo	500,00 €	
		4.773,32 €
GUZTIRA		475.338,76 €

DIRUZAINZTA-SALDOA	DATA		
	20-10-29	534.581,12	
	URRIA	AZAROA	ABENDUA
SOLDATAK		48.000,00	100.000,00
GS	17.000,00	17.000,00	17.000,00
PFEZ			
ELKARKIDETZA		3.000,00	6.000,00
HIRIGINTZA		2.000,00	2.000,00
JUNDIZ TASA		70.000,00	70.000,00
LEASING	6.341,88	6.341,88	6.341,88
HONDAKINAK	108.700,00	90.500,00	90.500,00
SARE SOZIALAK			20.000,00
LAGUNTZA TEKNIKOA			8.750,00
EEP eskualdeko enplegu plana			140.000,00
BESTELAKOAK		15.000,00	15.000,00
ORDAINKETAK, GUZTIRA	132.041,88	251.841,88	475.591,88

DIRUZAINZTA-SALDOA	402.539,24	250.697,36	-224.894,52
--------------------	------------	------------	-------------

EGITEKE DAUDEN

DIRU-SARRERAK

TEFFF/FOFFEL	100.000,00		
--------------	------------	--	--

EGITEKE DAUDEN DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	100.000,00	0,00	0,00
--	-------------------	-------------	-------------

DIRUZAINZTA	502.539,24	250.697,36	-224.894,52
--------------------	-------------------	-------------------	--------------------

Teknikariak adierazi du 4. hiruhilekoko ekarpen-eskaera bidali dela. Ordaindu gabeko zorrei dagokienez, azaldu du ordaintzeko falta den bakarra 2019ko Giza Ongizate zerbitzuaren ekarpenak direla, Aiarako Udalari ordaindu beharrekoak.

Eztabaida bukatu ostean, jakinaren gainean geratu dira guztiak.

3.- TURISMO-AURREKONTUARI BURUZKO INFORMAZIOA, BASO ARLOKO LAGUNTZEN EBAZPENAREN OSTEAN



Teknikariak Eusko Jaurlaritzak eta AFAk emandako dirulaguntzen berri eman du.

Urriaren 14ko Eusko Jaurlaritzaren Ebazpena:

	AURREKONTUA	EUSKO JAURLARITZARI ESKATUTAKOA	
Laguntza teknikoa	35.090,00 €	21.054,00 €	21.049,24 €
Basquemountains	9.680,00 €	4.840,00 €	4.838,91 €
Kalitatea. Jardunbide egokiak.	11.900,00 €	5.950,00 €	7.138,39 €
Sareetako kide izatea	1.000,00 €	500,00 €	499,89 €
Bisita antzeztuak	17.030,00 €	8.515,00 €	8.513,08 €
Txakolinaren ibilbidea	41.408,80 €	20.704,40 €	20.699,72 €

116.108,80 € 61.563,40 € 62.739,22 €

Urriaren 13ko AFAREN ebazpena:

KONTZEPTUA	AURREKONTUA	DIRULAGUNTZA	EMANDAKOA
Online publizitatea	8.125,15	4.000,00	3.611,31
Sustapen-materiala			0,00
Kode etikoaren aholkularitza	11.900,00	5.950,00	6.043,31
Bisita gidatuak	9.240,00	4.620,00	4.692,45
Webgunea eguneratzea	8.125,15	4.062,58	3.611,31
Ekitaldi eta produktu turistikoak	26.120,00	13.060,00	13.264,81
COVID-19 gastuak	39.930,00	16.456,00	16.714,07
Turismo-bulegoa	5.000,00	4.000,00	4.062,73
GUZTIRA	108.440,30	52.148,58	52.000,00

Horren harira, Turismo Saileko Aurrekontuaren laburpena honako hau da:

	HORNITZAILEA	AURREKONTUA	AFA	EJ	KUADRILLA
Sustapen-materiala	BELL	4.658,50 €	0,00 €	2.328,72 €	2.329,78 €

Webgunea eguneratzea	GUREAK	8.125,15 €	3.860,24 €	4.061,66 €	203,25 €
----------------------	--------	------------	------------	------------	----------

Online publizitatea	GUREAK	8.125,15 €	3.860,24 €	4.061,66 €	203,25 €
---------------------	--------	------------	------------	------------	----------



Kode etikoaren aholkularitza	Iparnature	5.297,14 €	2.875,53 €	7.138,39 €	0,00 €
------------------------------	------------	------------	------------	------------	--------

COVID-19 gastuak	IPARNATURE	35.090,00 €	15.700,57 €	21.049,24 €	0,00 €
COVID-19 gastuak	Inboost	4.840,00 €	2.165,60 €	2.419,45 €	254,95 €
Turismo-bulegoa	Artea	5.000,00 €	4.342,77 €		657,23 €

Ekitaldi eta produktu turistikoak	Sapo	5.280,00 €	2.866,23 €	2.144,52 €	269,26 €
Ekitaldi eta produktu turistikoak	GUREAK	6.000,00 €	3.257,08 €	2.999,32 €	0,00 €
Ekitaldi eta produktu turistikoak	GUREAK	10.000,00 €	5.428,46 €	4.998,87 €	0,00 €
Ekitaldi eta produktu turistikoak	Inboost	4.840,00 €	2.627,38 €	2.419,45 €	0,00 €

Bisita gidatuak	Sapo	9.240,00 €	5.015,90 €	4.618,96 €	0,00 €
-----------------	------	------------	------------	------------	--------

106.495,94 € 51.999,99 € 58.240,24 € 3.917,71 €

IRRATIA	2.500,00 €		1.249,72 €	1.250,28 €
KARTELAK	500,00 €		249,94 €	250,06 €
SUSTAPENA	3.000,00 €		1.499,66 €	1.500,34 €
GUARDIAKO UPATEGIA	2.000,00 €		999,77 €	1.000,23 €
ACEVIN	1.000,00 €		499,89 €	500,11 €

115.495,94 € 51.999,99 € 62.739,22 € 8.418,73 €

PTE 41.178,50 € 16.567,67 € 20.089,71 € 5.599,71 €

Eztabaidarik sortu ez denez, jakinaren gainean geratu dira guztiak

4.- TURISMO SAILEKO ESLEIPEN-PROPOSAMENAK

Teknikariak jakinarazi du Turismo Saileko aurrekontuko jarduera batzuk aztertzen ari direla, azaroan eta abenduan gauzatu ahal izateko (sustapen-materiala, ekitaldi eta produktu turistikoak, bisita gidatuak, etab.). Edonola ere, oraingo osasun-egoeraren ondorioz, nahiz eta jarduera horiek azaroan eta abenduan gauzatzeko lantzen ari ziren, lan guztiak bertan behera geratu dira.

Kuadrillako presidentek beste kuadrilla batzuetako presidente eta teknikariekin izandako bileretan proposatu da, oraingo osasun-egoera dela eta, egokia izango litzatekeela Eusko Jaurlaritzari eta AFari proposatzea 2020ko laguntzak 2021eko ekainera arte gauzatzeko eta justifikatzeko aukera ematea, turismo-bonuekin egin den moduan.



Eztabaida bukatu ostean, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- AFari eta Eusko Jaurlaritzaren Turismo Sailari eskatzea 2020ko turismo-laguntzen gauzatzea 2021era atzeratzeko aukera emateko baimena.

5.- TURISMOKO LAGUNTZA TEKNIKORAKO KONTRATUAREN EBAZPEN-PROPOSAMENA ETA LIZITAZIO BERRIAREN PROPOSAMENA

Teknikariak adierazi du, Eusko Jaurlaritzak kode etikoa abian jarri ondoren eta jardunbide egokien programetako aldaketen ondoren, Kuadrillako laguntza tekniko eta kode etikoa pertsona bakar batek emateko, urriaren 27an Iparnature SL enpresari jakinarazi zitzaizela 2021eko ekainaren 30era arte dugun kontratua 2020ko abenduaren 31n azkentzeko asmoa. Egun horretan bertan, enpresak jakinarazpena jaso eta adierazi zuen ados zegoela kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik gabeko deuseztapen horrekin.

Gaia aztertu ostean, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

IKUSI DA: Aiarako Kuadrillaren eta Iparnature SLren arteko kontratuaren behar baino lehenagoko ebazpenaren Presidentetzaren proposamena. Kontratu hori turismo arloan laguntza teknikoaren zerbitzua emateko zen, eta 2020ko abenduaren 31n edo lizitazio berriaren esleipenduna zerbitzua ematen hasten denean azkenduko da. 191 2019/2/S218 espedientea jasotzea. 2020ko urriaren 27an jakinarazi zitzaion enpresari; S-2020/252 irteera.

IKUSI DA Iparnature SL enpresaren erabakia, urriaren 27an jakinarazitakoa, zeinak E-2020/557 sarrera-kodea duen.

LEHENENGOA.- Berrestea Aiarako Kuadrillaren eta Iparnature SLren arteko kontratua azkentzeko Presidentetzaren proposamena. Kontratu hori turismoaren arloan laguntza teknikoaren zerbitzua emateko zen.

BIGARRENA.- Sustapen ekonomiko eta Turismo Sailak turismo arloko laguntza teknikoaren zerbitzua kontratatzeko espediente bat irekiko du, Kuadrillak dituen beharizan guztiak asetzeko. Gainera, zerbitzu horrek Basquetourrek ezarritako baldintza guztiak eta Eusko Jaurlaritzako eta Arabako Foru Aldundiko laguntzak lortzeko eskakizunak bete beharko ditu. Kontratazio horretako jardueren hasiera 2021eko urtarrilaren 1ean edo geroago izango da.

6.- DENDATIK ETXERA PROIEKTUAREN FROGA PILOTUAREN KONTU EMATEA

Teknikariak abenduaren 31ra arte egingo den froga pilotu horren emaitza azaldu du. Izena eman duten saltoki eta erabiltzaileen inguruko datuak eta frogari buruzko asteroko datuak eman ditu.



Irabien Marigorta andrea bilkurara bertaratu da 13:31n.

Azaldu du momentu horretan garraio-jarduerak baloratzen ari direla, izan ere, zerbitzu horrekin ez daude oso kontent, eta, beraz, beste alternatiba batzuk aztertzen ari dira. Bestalde, komenigarritzat jo da adineko jendea nola artatu baloratzea.

Eztabaida bukatu ostean, jakinaren gainean geratu dira guztiak.

7.- PROMOZIOKO TEKNIKARIEK VITAL FUNDAZIOAREKIN IZANDAKO BILKURAREN KONTU EMATEA

Saileko teknikariak aipatu du iragan urriaren 21ean gainontzeko Kuadrillen sustapen-teknikariak gure sustapen-teknikariarekin bildu zirela Vital Fundazioan Mikel Perezekin eta Arantza Ibañez de Opakua zuzendariarekin. Asmoa zen Fundazioak finantzatzen lagundu zezan Aldundiarekin batera lantzen ari diren proiektu batzuk. Bilera horren inguruan, Fundazioak interesa zuela antzeman zen, eta Fundazioko ordezkariak adierazi zuten Kuadrilla guztiakin aldi berean biltzen ziren bigarren aldia zela. Teknikarien proposamena Kuadrillen Presidentetzei heldu zaie, beharbada finantzaketa-laguntzak lortu ahal direlako ez soilik Sustapen Sailean, baizik eta Turismokoan, Kulturakoan, eta beste sail batzuetan ere.

Gaia aztertu eta gero, komenigarria dirudi Presidentetzak dagozkion kudeaketa politikoak egitea; jakinaren gainean geratu dira guztiak.

8.- 2020/21 EEPari BURUZKO INFORMAZIOA (EBAZTEKE)

Saileko teknikariak azaldu du urriaren 29an 20/21 EEP (eskualdeko enplegu plana) ebazteke dagoela.

Gogorarazi du 2020rako egindako eskaera honako hau zela:

	KOSTUA	DIRULAGUNTZA	EKARPENA
LAUDIO	204.429,04 €	125.000,00 €	79.429,04 €
AMURRIO	248.378,15 €	161.500,00 €	86.878,15 €

452.807,19 €	286.500,00 €	166.307,19 €
--------------	--------------	---------------------

	KOSTUA	DIRULAGUNTZA	gEKARPENA
AIARA	78.000,00 €	50.000,00 €	28.000,00 €
ARTZINIEGA	46.000,00 €	37.500,00 €	8.500,00 €
OKONDO	45.000,00 €	37.500,00 €	7.500,00 €
URDUÑA	30.000,00 €	25.000,00 €	5.000,00 €



	199.000,00 €	150.000,00 €	49.000,00 €
--	--------------	--------------	-------------

651.807,19 €	436.500,00 €	215.307,19 €
---------------------	---------------------	---------------------

Enpresentzako dirulaguntza

ENPRESENTZAKO 2. MOTAKO AKZIOAK-

	PERTSONAK	DIRULAGUNTZA	GUZTIRA
KOLEKTIBO BEREZIEN KONTRATAZIOAK	10	9.000,00 €	90.000,00 €
SEI HILABETERAKO KONTRATAZIOAK	12	6.000,00 €	72.000,00 €
LANALDI ERDIKO KONTRATAZIOAK	10	3.000,00 €	30.000,00 €
			192.000,00 €

LAUDIO

	PERTSONAK	DIRULAGUNTZA	GUZTIRA
KOLEKTIBO BEREZIEN KONTRATAZIOAK	2	9.000,00 €	18.000,00 €
SEI HILABETERAKO KONTRATAZIOAK	4	6.000,00 €	24.000,00 €
LANALDI ERDIKO KONTRATAZIOAK	2	3.000,00 €	6.000,00 €
			48.000,00 €

Azaldu da laguntzen ebazpenaren jakinarazpenaren eta gauzatzearen epeak estuak direla eta laguntzak epe barruan justifikatzeko denbora gutxi dagoela.

Azalpenak bukatu ostean, jakinaren gainean geratu dira guztiak.

9.- 20/21 EEPren LIZITAZIOAREN PLEGUAK (EPE OSO ESTUAK, 11/18an ONESTEN BADITUGU)

Saileko teknikariak azaldu du EEPren (eskualdeko enplegu plana) laguntzak emateko ebazpenaren jakinarazpenaren ostean egin beharreko izapide eta jarduketa prozesu luzea, baita hori gauzatzeko eta justifikatzeko epe laburra dela ere.

Eztabaida bukatu ostean, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Pleguen (KAPP eta PTP) eredia onestea, 2019rako erabilitako pleguen arabera.

BIGARRENA.- 2020ko EEPren eskaeraren arabera, kontratazioaren xedea hau izango litzateke:

Laudio

1eko 2 ekipo + lorezaintzako 4 hitzarmen



Programaren lizitazioa 102.214,52 €; dirulaguntza 62.500,00 €; Udalak ordaindu beharrekoa 39.714,52 €

Laudioko kostua guztira: 79.429,04 €

Amurrio

1eko 2 ekipo + lorezaintzako 4 hitzarmen

3 herri-laguntzailereren 1 ekipo

Mendiko ekipoa

Programaren lizitazioa 95.946,29 €; dirulaguntza 62.500,00 €; Udalak ordaindu beharrekoa 33.446,29 €

Hiri-ekipoa

Programaren lizitazioa 93.573,19 €; dirulaguntza 62.500,00 €; Udalak ordaindu beharrekoa 31.073,19 €

Herri-laguntzaileen ekipoa

Programaren lizitazioa 42.858,67 €; dirulaguntza 24.000,00 €; Udalak ordaindu beharrekoa 18.858,67 €

Amurrioko kostua guztira: 83.378,15 €

HIRUGARRENA.- Edonola ere, Presidentetzari gaitasuna eman zaio LANBIDEREN ebazpena baino lehenagoko erabakietan ezarritakoaren arabera egokitzeko onetsitako Pleguak, 2020ko EEPren laguntzak emanda.

10.- 2021eko AURREKONTUAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKO INFORMAZIOA

Saileko teknikariak zerbitzu bakoitzeko partidak xehetasun handiz azaldu ditu, eta analisi konparatibo bat egin du 2019ko aurrekontuarekin alderatzeko, aldaketa nagusiak deskribatuta eta aldaketa horiek zer dela eta egin diren aipatuta. Zentzu horretan, aurrekontuaren analisi konparatibo horren laburpena honako hau da:



2021	GASTU OROKORRAK	TURISMOA	HIRIGINTZA	GUZTIRA	
Laudio	137.063,33 €	10.787,08 €		147.850,41 €	% 26
Amurrio	80.518,31 €	6.167,62 €		86.685,93 €	% 15
Aiara	97.472,20 €	1.772,22 €	61.161,95 €	160.406,37 €	% 28
Artziniega	75.638,19 €	1.085,14 €	34.646,96 €	111.370,29 €	% 19
Okondo	56.077,97 €	707,94 €	12.192,41 €	68.978,32 €	% 12
	446.770,00 €	20.520,00 €	108.001,32 €	575.291,32 €	

2020					
Laudio	112.590,01 €	13.485,58 €		126.075,59 €	% 24
Amurrio	65.826,44 €	7.619,48 €		73.445,92 €	% 14
Aiara	89.780,05 €	2.197,84 €	73.610,28 €	165.588,17 €	% 32
Artziniega	66.709,41 €	1.356,34 €	28.902,97 €	96.968,72 €	% 19
Okondo	53.426,91 €	860,77 €	4.625,44 €	58.913,12 €	% 11
	388.332,82 €	25.520,01 €	107.138,68 €	520.991,51 €	

2021	EEP	HHS	GO+TUR+HIRGZ	GUZTIRA	
Laudio	152.288,74 €	611.093,32 €	147.850,41 €	911.232,47 €	% 45
Amurrio	85.359,43 €	355.139,14 €	86.685,93 €	527.184,50 €	% 26
Aiara	7.902,97 €	121.248,44 €	160.406,37 €	289.557,78 €	% 14
Artziniega	9.739,02 €	73.813,93 €	111.370,29 €	194.923,23 €	% 10
Okondo	4.709,85 €	48.285,53 €	68.978,32 €	121.973,69 €	% 6
	260.000,00 €	1.209.580,36 €	575.291,32 €	2.044.871,67 €	

2020					
Laudio	152.288,74 €	538.432,89 €	126.075,59 €	816.797,22 €	%
Amurrio	85.359,43 €	380.252,48 €	73.445,92 €	539.057,83 €	%
Aiara	7.902,97 €	146.270,81 €	165.588,17 €	319.761,94 €	%
Artziniega	9.739,02 €	82.998,40 €	96.968,72 €	189.706,13 €	%
Okondo	4.709,85 €	52.996,25 €	58.913,12 €	116.619,22 €	%
	260.000,00 €	1.200.950,84 €	520.991,51 €	1.981.942,35 €	



11.- EUSKARAREN BIDEZ GIZARTERATZE-PROGRAMAK GARATZEKO AFAREN DIRULAGUNTZAREN BEHIN-BEHINEKO EBAZPENA

Amurrio teknikari andreak azaldu du uztailaren 27ko Diputatu Nagusiaren 238/2020 Foru Dekretuaren bidez (2020-08-10 ALHAO), 2020 ekitaldian udalek eta kuadrillek sustatutako euskararen bidezko gizarteratze-programen garapenerako AFaren dirulaguntzen deialdi publikoa onetsi zela.

Tokiko Gobernu Batzordeak 2020ko irailaren 2an hartutako erabakiaren arabera, 2020ko irailaren 4an Aiarako Kuadrillak dirulaguntza hori AFari eskatu zion, 8.000,00 euroko guztizko gastu-aurrekontuarekin, 2020ko AIARALDEA EUSKARAZ programa gauzatzeko.

Arabako Euskara Zerbitzuen hileroko bileran, 2020ko urriaren 26an, AFAk jakinarazi zuen aipatutako dirulaguntzaren **behin-betiko ebazpena**, zeinaren arabera Aiarako Kuadrillari behin-behinean **2.516,86 euroko hasierako dirulaguntza** ematen zaion, **8.000,00 euroko gastu-aurrekontutik**.

Hasierako dirulaguntza hori honela kalkulatzen da: 2020ko AIARALDEA EUSKARAZ programari 55 puntu eman zaizkio, eta hori **% 40ko finantzaketa-portzentajearen** baliokidea da, hots, **3.200,00 €**. Dirulaguntza jasoko duten erakunde guztien artean banatu beharreko zenbatekoaren totala gainditzen du kantitate horrek, eta, beraz, urtero bezala, diruz lagundu beharreko zenbatekoa murriztuko da. Hori dela eta, Aiarako Kuadrillak eskuratutako portzentajearen arabera dagokion zenbatekoaren **% 78,65** jasoko du, hots, **2.516,86 €**, betiere, aurreikusitako gastua egiten bada. Kuadrillak 8.000,00 € horiek gastatzen ez baditu, dirulaguntza proportzionalki murriztuko da.

Azalpenak bukatu ostean, jakinaren gainean geratu dira guztiak.

Alamillo Udaeta jauna bilkuratik irten da 14:18ak direnean.

12.- 2020ko AIARALDEA EUSKARAZ JARDUERAK, EUSKARAREN BIDEZ GIZARTERATZEKO PROGRAMAK GAUZATZEKO AFAREN DIRULAGUNTZAREN ESPARRUAN

Saileko teknikari Amurrio andreak azaldu du jarduera bat egingo dela udalerrri bakoitzean. **Mota hauetako jarduerak** proposatu dira: bakarrizketak, bertso-antzerkia, haurrentzako antzerkia, kontakizuna eta magia-ikuskizuna. Adierazi du jarduera horietarako, hainbat enpresari eskatu zaizkiola aurrekontuak, eta, jarduera-modalitate bakoitzeko, txosten teknikoen esleipen-proposamenak aztertuko direla.

GASTU TOTALAREN AURREKONTUA: 5.181,00 €
AFAK FINANTZATUTAKO ZATIA (GUTXI GORABEHERAKOA, EMANDAKO PORTZENTAJEARI JARRAIKIZ): 1.629,42 €



UDALEN EKARPENA: 3.551,58 €

Analisia bukatu ostean, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Jarraian aipatzen diren jarduera-modalitateetan, honako esleipen hauek egitea (jarduera horrentzat, hasiera batean, % 30eko foru-dirulaguntza bat egongo da. Falta den % 70 udalerriek finantzatu dute).

BAKARRIZKETAK: zerbitzua **ASIER ÁLVAREZ DE ARCAY**ri esleitzea, **800,00** euroko zenbatekoatik (gehi % 10eko BEZa).

BERTSO-ANTZERKIAK: zerbitzua **LANKU BERTSO ZERBITZUAK SL** enpresari esleitzea, **900,00** euroko zenbatekoatik, (gehi % 10eko BEZa).

HAURRENTZAKO ANTZERKIA: zerbitzua **KULTURA KOORD. AMALUR SL** enpresari esleitzea, **1.000,00** euroko zenbatekoatik, (gehi % 10eko BEZa).

MAGIA-IKUSKIZUNA: zerbitzua **MAITE ORTEGA ZUBICARAY**ri esleitzea, **600,00** euroko zenbatekoatik (gehi % 10eko BEZa).

KONTAKIZUNA: zerbitzua **ANTONIO BASTERO REY**ri esleitzea **1.350,00** euroko zenbatekoatik (gehi % 10eko BEZa).

13.- AFaren ETA AIARAKO KUADRILLAREN ARTEKO HITZARMENA, 2020koa

Saileko teknikariak azaldu du 2020ko irailaren 2ko Tokiko Gobernu Batzordean jakinarazi bezala, Arabako Foru Aldundiak 2020ko Gastu Aurrekontuan 2016an sortutako partida bat duela, bere Diputatu Nagusiaren Departamentuaren eta Lurraldeko Kuadrillen arteko lankidetzaz hitzarmenak sinatzearen bidez euskara sustatzeko. Irailaren 9an Aiarako Kuadrillaren eta AFaren arteko hitzarmena berritzea eskatu zen, baita hori erabiltzea ere, Aiaraldeko 5 udalerrietan 2020ko EUSKARALDIAREN programaren dinamizazioko gastuaren 7.200,00 euroko zenbatekoa murrizteko.

Aurten, osasun-egoeraren ondorioz, AFAk adierazi du hitzarmen horren bidez **7.000,00 €** emango diola Kuadrilla bakoitzari (% 100eko finantzaketa), euskararen gizarteratzea sustatzeko programak garatzeko.

Hitzarmen honen iraupena **lau urtekoa** izatea aurreikusten da, eta, espero da, epe hori iraganda, urtero berritu ahal izatea beste lau urtetan zehar, betiere, horretarako kreditu nahikoa eta egokia badago. Hitzarmenaren testua beraz gain, **urtero** jarduera-plan bat eta programa bat bidali behar dira.

Analisia bukatu ostean, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Arabako Foru Aldundiarekin Lankidetzaz Hitzarmena sinatzea, euskararen sustapenari laguntzeko, 4 urtetan zehar, urtebeteko beste lau luzapenekin.



14.- ARAKALDOKO ETA OROZKOKO UDAL BIZKAITARREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAK, GARBIGUNEA ERABILTZEKO

Saileko teknikari Arbaizagoitia andreak onesteke dauden hitzarmenaren zirriborroen edukiak eta irismena azaldu ditu. Hitzarmen horien xedea da Laudioko Garbigunea erabiltzen uztea Arakaldoko eta Orozkoko erabiltzaileei, deskribatutako baldintzetan. Laburbildu daiteke edukia aurreko urteetako eduki bera dela eta prezioak eguneratuko direla.

Analisia bukatu ostean, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Lankidetzeta-hitzarmena sinatzea Arakaldoko eta Orozkoko Udalekin Aiarako Kuadrillako Garbigunea erabiltzeko.

15.- MATERIA ORGANIKOA BILTZEKO MATERIALAK ESKURATZEA

Saileko teknikariak azaldu du, gaur egun, Kuadrillan, materia organikoa biltzeko 40 ontzi daudela oraindik bide publikoan instalatzeke, izan ere, materialen banaketa egin behar da eta zerbitzua behar bezala ahalbidetzeko behar diren komunikazio-jarduerak gauzatu behar dira.

2020ko urriaren 16an, foru-erakundeko arduradun teknikoek posta elektroniko bidez aurreratu ziguten 15.000 euroko laguntzaren ebazpena aldekoa izan dela. Laguntza hori Diputatu Nagusiaren otsailaren 19ko Arabako Lurralde Historikoan materia organikoaren gaikako bilketa ezartzeko 78/2020 Foru Dekretuaren bidez araututako deialdiari dagokio. Nabarmendu beharra dago, 2020ko deialdiaren laugarren klausulak honako hau ezartzen duela: *“Deialdi honetako dirulaguntzak ordaintzeko eskaerak 2020ko abenduaren 31 baino lehen aurkeztuko dira. Erakundeek diruz lagundutako jarduketak egin behar dituzte 2020ko abenduaren 31 baino lehen. Deialdi honetan 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako jarduketek jaso dezakete dirulaguntza.”*

Era berean, saileko batzordearen agindua aintzat hartu beharra dago, zeinak iragan urriaren 9an egindako ezohiko bilkuran Kuadrillari eskatu zion ontzi berriak instalatzen jarraitzea, beharreko kit-ak banatzearekin batera, izan ere, zerbitzu hori gakoa da europar helburuak betetze aldera bilketari dagozkion datuak hobetzeko.

Hori guztiori aintzat hartuta, udal-teknikariekin adostutako banaketa-irizpideen definizioa eta materialen kuantifikazioa kontuan izanda eta aintzat hartuta materialak entregatzeko 3 edo 4 asteko gutxieneko epea, aipatutako materialak eskuratu dira, 2020ko abenduaren 31 baino lehen banatzeko.

Urriaren 28ko Dekretuaren bidez, PAPELES DEL CARMEN enpresarentzat, 10 litroko 30.000 poltsa konpostagarri eskuratu dira, 1.887,60 euroko zenbatekoagatik, BEZa barne.



Urriaren 28ko 65/2020 Dekretuaren bidez, ID WASTE SL enpresari, 2.299 euroko zenbatekoagatik, BEZa barne, honako material hauen hornidura eskatu zaio: 10 litroko 400 pertz, 40 litroko 30 pertz, AGA motako 300 giltza, 400 triptiko.

Azalpenak bukatu ostean, jakinaren gainean geratu dira guztiak.

16.- NEGUKO BIDEGINTZA-ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA ARAUTZEKO PLEGUAK

Ingurumeneko teknikariak elurra kentzeko ekipoen kontratazioari buruzko PTPen zirriborroaren edukiak eta irismena azaldu ditu, datozen 3 kanpainen gehi urtebeteko 2 luzapen posibleren aurrean.

Plegu hauek idaztea zaila izan dela jakinarazi da.

Azalpenak bukatu ostean, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- KAPP eta PTP Pleguak onestea, zeinek Aiarako Kuadrillaren neguko bidegintza-zerbitzuaren kontratazioa arautzen duten.

BIGARRENA.- Horiei honako aldaketa hauek egitea:

Kamioiaren potentzia 170 CV izatea, 350 CV beharrea.
Erantzukizun zibileko aseguruia kamioientzat soilik eskatzea.
Kontratuaren prezioa 195.926,85 eurokoa izatea.
Kamioiei lote guztietan lizitatzeko baimena ematea.

Ondoren, Presidentziak azaldu du premiazkoa dela gai-zerrendan bi puntu gehiago sartzea. Hori aho batez onetsi da, eta puntu horiek hauek dira:

- AEKOren eskaera.
- Osasun Zaintzaren Hitzarmena eguneratzea.

17.- AEKOren eskaera

Jakinarazi da AEKO elkarteak Kuadrillari honako hau eskatu diola:

“Kuadrillak Eusko Jaurlaritzari eskaera bat helaraztea, mota honetako arautegien egingo diren berrikuspenetan mugikortasuna Aiarako eskualde-mailan mantendu ahal izateko, eta ez soilik udalerrri mugakideekin, egoera hauek ekiditeko xedez.”

Gaia aztertu ostean, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:



LEHENENGOA.- Onestea eskualdeko AEKO elkarteak (Laudioko APILL, Amurrioko APIMCA eta Artziniegako AEME udal-elkarteek osatutako merkataritza federazioa) egin duen eskaera, eta Eusko Jaurlaritzari horren berri ematea; horrela, mota honetako arautegien egingo diren berrikuspenetan mugikortasuna **soilik udalerri mugakideekin izan behar**ean, **Aiarako eskualde-mailan mantendu ahal izango da**, jarduera sozio-ekonomiko eta kirol arlokoetarako (bakarkakoak zein kanpoaldeko ariketa fisikoa), izan ere, Aiarako Kuadrillak udalerrien arteko harreman sendoak ditu, maila sozio-ekonomikoan, osasunean, administrazioan, eta beste maila askotan. Eskualdean kokatutako establezimendu eta zerbitzu-enpresa askoren bezeroak, Aiarako Kuadrillan bizi arren, ez dira udalerri mugakideetan bizi, Laudio eta Amurrioren kasuan gertatzen den bezala. Eskaera egin da halako egoerak ekiditeko xedez.”

18.- OSASUN ZAINTZAREN HITZARMENA ALDATZEA

Mutua IMQ Prevención taldeak Osasun Zaintzaren Hitzarmenaren prezioa eguneratzeko beharra adierazi du, Aiarako Kuadrillara langile batzuk gehitu zaizkiolako (arkitektoak, aparejadoreak, gizarte langile bat); hortaz, prezioa 1.350,12 eurokoa izango da (1.115,80 euro gehi 234,318 euroko BEZa).

Gaia aztertu ostean, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Onestea Kuadrillako langileen 2019-2020ko (abuztura arte) Osasun Zaintzaren Hitzarmenaren prezio eguneraketa, **1.350,12 euroko zenbatekoagatik** (1.115,80 euro gehi 234,318 euroko BEZa).

19.- ESKAERAK ETA GALDERAK

Ez da horren inguruko alegaziorik aurkeztu.

Eta beste gairik ez dagoenez, eta legealdi honi dagokion azken formaltasuna beteta, legez bilkura amaitutzat eman da goian adierazitako eguneko **14:52ak** direnean. Era berean, presidenteak eta neuk, Idazkariak, izenpetu dugu akta hau; eta, horrez gain, neuk idatzitako guztia egiaztatzen dut.

KUADRILLAKO PRESIDENTEA. ENCINA CASTRESANA ASTARLOA.

IDAZKARIA. VIRGINIA CARCELÉN GARCÍA

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA
DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE**